



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena..
- Azaroaren 8ko 3/2022 Foru Dekretu-Araua, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA:

2023ko Aurrekontuaren likidazioa

1/2013 Foru Arauak bi entitate desberdin bereizten ditu:

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK.

Administrazio izaera duten entitateak, hau da, dirusarrera komertzialekin finantziatutakoak ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak. 2023an soilik Tolosako Udala da.

Entitate hauen kasuan, helburuak betetzen diren egiaztatu beharko da kontuak bateratu ondoren eta finantzaketa ahalmenaren ikuspuntutik, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europearrean jasotako definizioari jarraituz. Administrazio izaera udalak soilik duenez, helburuak egiaztatzeko bere kontuak erabiliko dira.

**HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA****Aurrekontuen egonkortasuna**

2023ko Aurrekontuko likidazioaren espedienteak 1.012.673,79 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Kalkulua egiteko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziari ondorengo SEC doikuntzak aplikatu dira:

Ajusteak

Diru-sarreraren bilketaren doikuntzak, 1. kapitulua	-247.905,01
Diru-sarreraren bilketaren doikuntzak, 2. kapitulua	585.433,37
Diru-sarreraren bilketaren doikuntzak, 3. kapitulua	243.390,10
Ekitaldian egindako gastuak, aurrekontuan aplikatzeko daudenak	-148.894,08
Eskuratzeak ordainketa geroratuarekin	-1.100.000,00

Guztira ajusteak	-667.975,62
------------------	-------------

Ondorengo taulan jasotzen dira finantza ahalmena / premiaren kalkuluak:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	32.615.009,96
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	30.934.360,55
SEC doikuntzak	<u>-667.975,62</u>
Finantzaketa ahalmena / premia	1.012.673,79
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	5.806.223,53
DGak finantzatutako defizita:	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia, erreferentziazko defizitarekin alderatzeko	1.012.673,79

2023. urterako ez da egonkortasun helbururik ezarri, baina bai, ordea, erreferentziazko defizit bat, eta gomendagarria da udalak hura ez gainditzea. Tolosaren kasuan, erreferentziazko defizit hori 292.926,00 eurokoa da.



Bi zenbateko horiek alderatuz, ikus daiteke udalaren finantzaketa ahalmen/beharrak erreferentziazko defizita ez duela gaintitzen.

Finantzen iraunkortasuna

2023ko abenduaren 31n, udalaren zor bizia, guztira, 2023an likidatutako sarrera arrunten %4,10 da, ondorengo datu hauen arabera:

Epe luzeko zor bizia 2022-12-31n:	2.231.757,95
Mailegu berriak 2023an	0,00
Amortizazioak 2023an	914.996,63
Epe laburreko zor bizia 2023-12-31n	0,00
Zor bizia 2023-12-31n:	<u>1.316.761,32</u>
2023ko eskubide likidatuak eragiketa arruntetan:	32.090.126,03
Zor biziaren %	%4,10

Kalkulua egiteko, 2023ko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak hartu dira kontutan, abaletatik eratorritako arriskua barne.

2023. urterako zor biziaren helburua etenda dago.

Gastuaren araua

2023. urtean gastu konputagarriaren bilakaera honakoa izan da:

	2023	2022
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	30.934.360,55	29.088.750,32
Zorraren interesak:	54.540,81	5.079,99
SEC doikuntzak:	1.185.388,95	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	2.388.136,81	2.469.432,63
Gastu konputagarria:	<u>29.677.071,88</u>	<u>26.614.237,70</u>
Gastu konputagarriaren hazkundera:	11,51%	



Kalkuluak egiteko aplikatu diren SEC doikuntzak hauek izan dira:

Ajusteak

Inbertsio errealen besterenganatzea	-63.505,13
Ekitaldian egindako gastuak, aurrekontuan aplikatzeko daudenak	148.894,08
Eskuratzeak ordainketa geroratuarekin	1.100.000,00
<hr/>	<hr/>
Guztira ajusteak	1.185.388,95

2023. urterako gastu arauaren helburua etenda dago.

ONDORIOAK

Toki entitate honek ez du gainditu 2023. ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita. Beraz, ez du 3/2022 FDAren 1.3 artikulua aurreikusitako plan ekonomiko finantzariorik egin behar.

2.- FORU ARAUAREN 1.2.b) ARTIKULUKO ENTITATEAK.

Entitate hauek merkatura bideratutakoak dira, hau da, dirusarrera komertzialekin finantziatutakoak diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak.

Kasu honetan daude udalaren sozietate hauen aurrekontuak:

- Tolargi S.L.
- Tolosa Gasa S.A.

Aurrekontu egonkortasunari dagokionez, 2023ko ekitaldirako sozietate hauek bete beharreko helburua, hau da oreka finantzarioa izatea, etenda dago.



2.1- Tolargi S.L.

Tolargi S.L-k 137.266,29 euroko irabaziak izan ditu 2023an. Beraz, egoera oreka finantzariokoa da.

2.2- Tolosa Gasa S.A.

Tolosa Gasa S.A-k 203.864,22 euroko irabaziak ditu 2023an. Beraz, egoera oreka finantzariokoa da.

ONDORIOAK

Entitate hauek ez dituzte neurri berezirik hartu behar.

Kontuhartzaile akzidentala